



txangoak

Getxotik Sopelaraino

## BIZKAIKO ITSASLABARRETAN BARRENA

Miguel Vega

**Bizkaiko mendebaldeko itsasertzean leku berezi ugari daude. Gainera, inguru zoragarri hori ibilaldietarako egokitu dute, oinezkoentzako pista bat eta Galea lurmuturreko itsasargiraino doan bidegorri bat eginik. Abraren eta Superportuaren ikuspegi ederrak daude: aurrealdean Serantes mendia, mendebaldean Lucero lurmuturra eta gure azpian Arrigunaga hondartza ikusiko ditugu.**

Ibilbide erraz eta interesgarri hau Galea lurmuturrean hasten da (Getxon), eta Sopelako Arrietara-Atxabiribil hondartzetan bukatzen da. Ibilbideko elementurik erakargarrienak itsaslabarrak eta hondartza naturalak dira. Itsasoak aurrera egin zuen azken aldirian, olatuek gogor jo zuten kostaldearen zati hori, eta higadurak marrearteko zabalgunea deritzon eremu laua eratu zuen. Itsasoak gaur egungo mailaraino atzera egin zuenean, itsasertza izandako eremu hori egungo kostaldearen gainean esekita geratu zen. Itsasoak behera egiten duenean, agerian geratzen dira arrokei itsatsirik bizi diren animalia eta landare bentikoak, hala nola aktiniak, lapak, gibulak, muskuiluak eta ezkurak.

### Aixerrota

Gure ibilbidea Aixerrotan hasten da. Errota hori XVIII. mendean eraiki zuten, eta Bizkaian gelditzen diren haize-errota bakaretako bat da. Egitura piramidala, adarrezko teilatua eta lau hegaleko ardatz hi-

gikorra ditu. Ibilbideko lehen geraleku horretan Abraren eta Superportuaren ikuspegi zoragarriak daude: aurrealdean Serantes mendia, mendebaldean Lucero lurmuturra eta gure azpian Arrigunaga hondartza ikusiko ditugu. Bidean aurkituko ditugun beste hondartza batzuetan bezalaxe, Arrigunagan zimentze-fenomeno bixia gertatu da: itsasora botatzen ziren galdaketa-zepak hondartzetaraino iristen ziren eta, apurka-apurka, harean eta harri-koskorretan finkatu dira.

Itsaslabarraren ondotik iparralderantz doan bideak Galeako gotorlekuraino eramango gaitu. "Printzearen gaztelua" ere esaten zaio. Itsas merkataritza zaintzeko eraikitako talaia militar bat da, XVIII. mendekoa. Gazteluaren hondakinen artean hazi diren heskai arantzatsuak hainbat hegazti paseriformeren gordelekua dira.

### Azkorriko itsaslabarrak

Bidean aurrera egingo dugu, Galea lurmuturreraino ("gale" itsaslabarra esan nahi





duen frantsesezko berba da). Itsaslabar ikusgarriak dituen irtengune naturala da. Bertara iristen garenean, oinezkoentzako bidexka hartuko dugu, aparkalekuaren ondoan. Bidexkak Gorrondatxe (edo Azkorri) hondartzako begiratokiraino eramango gaitu. Orain dela gutxi, nazioarteko zientzialariek hareatza horretako itsaslabarrak aukeratu dituzte Eozenoko bi estai geologiko ikertzeko: Ypresiarrak eta Lutetiarrak. Zientzialari eta ikerlariek bisitatuko duten eremu hori munduko sekzio geologikorik onena da arrokak ikertzeko eta orain dela 50 milioi urte zer gertatu zen jakiteko. Gainera, apo lasterkariak Bizkaian daukan habitat bakarra da. Gaur

egun, espezie horren populazioa lehengoratzeko ahaleginak egiten ari dira, arrakasta handiz.

### Barinatxe hondartza

Gorrondatxe hondartzara sartzeko bidearen ondoan dagoen iturrira iristen garenean, aldapa txiki batetik igoko gara, bunker zahar bateraino. Bunkerra Gerra Zibilaren garaian leku horrek izan zuen garrantzi estrategikoaren adierazgarria da. Aurrera jarraituko dugu, Barinatxe (edo "Salvaje") hondartzaraino. Larrez eta baratzez inguratuta dago, eta landarez estalitako itsaslabar garai batek babesten du.

Getxo eta Sopela udalerriek partekatzen duten hondartza da.

Bidean aurrera, Sopelako Arrietara eta Atxabiribil hondartzetara iritsiko gara. Itsasbeheran, hondartza biak elkartu egiten dira. Jende asko joaten da bertara, kirola egitera. Aparkalekutik abiatuta, eskuintara joko dugu, Larrabasterra auzotik hondartzetaraino doan errepidetik. Ibilbidea auzo horretan amaitzen da. Garraio publikoan itzuliko gara Getxora.

Ibilbidean, inguru horretako itsaslabarretan bizi diren hainbat hegazti ikusiko ditugu, hala nola antxeta mokogorria, kaio hausgara eta ubarroi mottoduna. ■

### OBSERVACIONES

**Dificultad:** Baja

**Tiempo:** 2:30 h

#### Transporte Público:

- Bizkaibus A3411 Bilbao - Getxo A 3413 Bilbao Getxo Azkorri. (parada Av. del Ángel nº 18).
- Metro Destino Bidezabal, o Plentzia o Sopelana En ambos casos debemos bajarnos en la parada llamada Bidezabal y tomar un paseo que nos lleva hasta el molino de Aixerrota.

#### En coche:

- Para llegar hasta Getxo en coche, debemos tomar la carretera B 637 dirección Getxo-Leioa-Plentzia.



### MOLINO DE AIXERROTA

El molino de Aixerrota, del que podemos disfrutar a lo largo de esta ruta, además de ser una antigua y notable edificación de Getxo, es en cierto modo un símbolo del municipio. Así lo demuestra su Ayuntamiento al utilizar frecuentemente, en actividades culturales y/o benéficas, réplicas en miniatura del mismo para obsequiar a visitantes, amigos y personas destacadas.

El nombre Aixerrota es etimológicamente en euskera "molino de viento" y deriva de la palabra aixe (axe, haize) = aire, viento, en euskera vizcaíno, y errota = girar, molino. En algunos documentos antiguos también se le denomina como Azerrota y Aterrota.

Parece ser que Aixerrota se construyó a mediados del siglo XVIII por encargo de Francisco Antonio de Arteaga. En un documento de 1795 figura como propietario el hijo del anterior, Antonio de Arteaga, persona notable en la Anteiglesia, ya que fue apoderado de Getxo en las Juntas Generales en los años 1788, 1792 y

1793. Además, fue Regidor de la Anteiglesia en 1792 y en 1795 fue "mayordomo" de la iglesia de Santa María de Getxo. Sin embargo, también hay referencias que remontan su origen hacia el año 1726, cuando fue mandado construir por un comerciante irlandés asentado en la anteiglesia llamado Edmundo de Shee.

La construcción de este tipo de edificios fue debida a la persistente sequía que azotó Bizkaia a principios del siglo XVIII, que dejó inutilizados los molinos tradicionales de agua y se sustituyeron por molinos de viento.

Aixerrota se utilizó, fundamentalmente, para moler maíz, grano básico en la alimentación vasca de la época. Pero hacia 1787, Aixerrota dejó de moler grano y, aunque parece que durante algún tiempo se utilizó el molino simplemente para guardar aperos de labranza y ganado, finalmente se abandonó toda su utilización. Actualmente, ha sido restaurado y aloja una galería de arte y un restaurante. ■